

1937ko apirilak 26: Munitibarren eta Bizkaiko Ekialdeko herrien aurkako erasoak



Patxi Juaristi

Soziologian doktorea
(UPV/EHU)

Laburpena

1937ko apirilaren 26an Kondor Legioak Gernika bonbardatu zuen, baina, egun hartan, alemaniarrek Oiz inguruko Bizkaiko ekialdeko herriak ere eraso zituzten (Markina, Ziortza-Bolibar, Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Arratzu, Muxika eta Errigoiti). Artikulu honetan, herri horiek jasan zituzten bonbardaketa eta metrailatzeak aztertu ditugu, fokua Munitibarren ezarriz. Izan ere, apirilaren 26an, herri hori hainbat aldiz eraso zuten airetik, eta, gure datuen arabera, bonbardaketen ondorioz, herrian bertan, 11 pertsona hil ziren (7 zibil eta 4 soldadu) eta bederatzi bat zaurituta gelditu ziren.

Summary

On the 26th of April 1937 the Condor Legion participated in the bombing of Guernica, but on that day, German troops also attacked many other villages around Oiz mountain (Markina, Ziortza-Bolibar, Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Arratzu, Muxika and Errigoiti). In this article we analyse the aerial bombing and machinegun attacks that those villages suffered, focusing the research on the attack suffered by the village called Munitibar. It has to be taken in account that on the 26th of April 1937 this town was attacked many times. According to the data we have gathered, 11 people were killed (7 civilians and 4 soldiers), and around 9 people were wounded.

Sarrera

1937ko apirilaren 26a ezaguna da Alemaniako Kondor Legioak¹ Gernika bonbardatu zuelako, baina, egun hartan, alemaniarrek Markina, Ziortza-Bolibar, Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Arratzu, Muxika eta Errigoiti ere eraso zituzten; baita Oiz mendi punta eta inguruak ere. Horrez gain, egun osoan zehar, Markinatik Gernikarako bidean topatu zituzten soldadu zein herritarrak metrailatzen aritu ziren. Horren guztiaren ondorioz, hainbat pertsona hil eta zauritu ziren, eta kalte materialak ere ugariak izan ziren.

Artikulu honetan, apirilaren 26an, Oiz inguruko Bizkaiko ekialdeko herriek jasan zituzten bonbardaketa eta metrailatzeak aztertu ditugu, fokua Munitibarren² ezarriz. Izan ere, egun hartan, herri hori hainbat aldiz eraso zuten airetik, eta, gure datuen arabera, bonbardaketen ondorioz, herrian bertan, 11 pertsona hil ziren (7 zibil eta 4 soldadu) eta bederatzi bat zaurituta gelditu ziren.

Gerra Zibilari buruzko liburuetan agertzen dira Munitibarren aurkako erasoei buruzko aipamenak. Gernikako bonbardaketa azaltzen denean, ia beti aitatzen da Munitibarkoa. Edozelan ere, testigantza gutxi jaso dira gaiaren inguruan, eta, dagoeneko, zaila da eraso hura bizi izan zutenen ahotik informazio gehiago biltzea, gertaerok bizi izan zituzten gehienak hilda daudelako.

Artxiboak eta liburuak arakatu, zein lortu ditugun testigantzen bidez, hainbat datu bildu ahal izan ditugu³; baina, egia esan, ezin izan dugu gertatutakoaren berreraiketa zehatza egin (bereziki hil zirenen kopuru zehatza eta horien izenak ezagutzeko). Izan ere, Kondor Legioak Munitibar eta Gernika egun berean eraso zituen, eta, ondorioz, nahastu egiten dira bateko eta besteko hildakoak eta zaurituak.

Zalantza gabe, ikerketa gehiago egin beharko dira jazoera bere osotasunean ezagutzeko. Hala eta guztiz ere, iruditzen zaigu artikulu honek balio dezakeela egun hartan Munitibarren eta inguruko herrietan gertatu zirenak apur bat hobeto ezagutzeko, eta baita aurrerantzean informazio gehiago biltzeko ere.

¹ Kondor Legioa Alemaniako indar berezia izan zen, Espainiako Gerra Zibilean Frankoren alde borrokatzen aritu zena. Gerra Zibilean parte hartuz, Hitlerren eta Luftwaffeko (Alemaniako aire armada) buruen helburua zen Alemaniako aire indarra gerra erreal batean probatzea.

² Herriaren izen ofiziala Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz bada ere, ezagunagoa da Munitibar izenarekin. Herria Arbatzegi eta Gerrikaitz guneei osatzen dute, eta Oiz mendiaren magalean kokaturik dago, Lea-Artibai eskualdean. 475 biztanle ditu, eta 326 etxebizitza (152 hutsik eta 174 okupatuak). Nekazaritza giroko herri askotan gertatu bezala, Munitibarko gazteek inguruko herri industrializatuagoetara joan ziren 70eko eta 80ko hamarkadetan. Lea-Artibai eskualdean hustuketa handienetarikoa izan duen herria da Munitibar. Gaur egungo biztanleriaren datuak mende hasierako datuekin alderatzen baditugu, biztanle-kopurua herenera murriztu dela ikusten da (<http://www.munitibar.org>).

³ Eskerrik asko artikulu hau idazteko informazioa eta testigantzak eman dizkidatenei. Eskerrik asko Munitibarko Udalariei Munitibarko Erregistro liburuan agertzen diren 1937ko apirilaren 26an hildakoei buruzko informazioa emateagatik. Eskerrik asko Rosario Bustindui, Jose Azpiazu, Mari Karmen Azkune, Luzia Muñoz, Jose Angel Uberuaga, Jose Mari Eizagirre eta Miren Urkiolari egun hartan Munitibarren bizi izan zutenari buruzko testigantza emateagatik. Eskerrik asko Ahaztuen Oroimenari, Jose Eigurenen eta Pilar Amestiren elkarrizketak gure esku uzteagatik, eta baita ahotsak egitasmoari Juanita Bilbao Olabarriagaren elkarrizketa erabiltzeko aukera emateagatik.



Iturria: norberak moldatua, Google Maps-etik lortutako mapa erabilia

1. 1937ko apirilak 24 (larunbata): frankistak jaun eta jabe intxortetan

Errepublikarren ahultasunaren ondorioz, 1937ko apirilaren 24ko arratsaldean, armada frankistak Intxorta mendietako (Elgeta eta Elorrio arteko mendiak) babes lerroa gainditu zuen (Beldarrain, 1980: 29), eta Elorrio (Jurramendiko Tertzioak eskuratu zuen), Elgeta (arratsaldeko 16:00etan) eta Zaldibarren (gauean) sartu zen (Irazabal, 2012:206).

24ko iluntzean, beraz, Intxorta mendietan eta Elorrioko posizioetan zeuden batailoiek frontea uzteko agindua jaso zuten. Lehenengo Eibarrera jaitsi ziren, gero Ermura, eta Trabakua Gainetik zehar, Bolibarrera, eta handik Munitibarrera, apirilaren 26ko goizean, Gernikatik zehar Bilbo ingurura heltzeko helburuarekin. Pablo Beldarrainek, Euskal Armadako komandanteak, honela deskribatu zuen Intxorta mendietan borrokatu ziren Ibaizabal eta Kirikiño batailoien ihesaldia:

Cuando perdimos Elorrio y el monte Intxorta al atardecer del 24 de abril, los bons. Ibaizabal y Kirikiño, defendiendo en los altos de Askonabieta y Karabieta (Elgeta), hubieron de salir durante la noche a través de Eibar, Ermua y el puerto montañoso de Trabakua encaminados a Gernika. Por la mañana del 26, tras una caminata de casi 30 km., estaban en Bolibar. Para la tarde, este pueblo sería tomado por el enemigo (Beldarrain, 1980:200).




Pablo Beldarrain Komandantea (1909-1997). Iturria: Eusko Media Fundazioa.

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/12655#1>

Apirilaren 24an, hegazkin italiar eta alemaniarrek Eibar bonbardatu zuten (Gutierrez, 2007:133); eta herria txikitzeaz gain, hildako ugari eragin zituzten. Frontea erortzear zegoela ohartuta, egun horretako arratsalde-gauean, agintari errepublikarrek Elgeta, Elorri eta Eibarreko fronteetatik hurbil zeuden herriak ebakutzeko agindua eman zuten (Irazabal, 2012:206; Bidasoa, 2005:349).

Ibaizabal eta Kirikiño batailoioek erretagoardiara abiatu ziren, baina Arana Goiri, Zergatikez, Abellaneda, Rebelion de la Sal eta Zabalbide batailoiek borroka gogorra izan zuten apirilaren 24tik 25erako goizaldean Santamariñazar mendian (Eibar, Ermua, Elgeta, Zaldibar eta Elorrio herrien artean dagoen mendia). Bataila hartan, 33 bat miliziar eta gudari hil ziren, eta bederatzi gudari preso hartu zituzten (Irazabal, 2012:209).



Iturria: norberak moldatua Mendikat web orritik lortutako mapa erabiliz (<https://www.mendikat.net>)

2. 1937ko apirilak 25 (Igandea): batailoiak eta herritarrak ihesean

Frankistak garaile atera ziren Santamariñazar mendian, eta, apirilaren 25ean, Areitioko mendatea (Ermua eta Zaldibar artean) hartu zuten, eta arazorik gabe sartu ziren Berrizen (zehatzago esanda, Berrizko beheko partean, Olakueta auzoan). Oiz mendiko hegomendebaldeko hegala ere hartu zuten (Irazabal, 2012:209; Salas, 1987:209).

Eibar inguruko mendiak ere erreketean eskuetan zeudenez, errepublikarrek argi ikusi zuten Eibar frankistek inguratuta zutela, eta laster jausiko zela. Ondorioz, apirilaren 25ean, Eibar defendatzen zuten gudari eta miliziarrek ihes egiten hasi ziren. Batzuk Markinarantz abiatu ziren, Barinagatik zehar (Gutierrez, 2007:135)⁴; beste batzuk Durangorantz. Dena dela,

Eibarko defendatzaile askok ez zekiten indar karlistek Olakueta eta ondoren, baita Areitio ere, kontrolatzen zituztenik. Hori dela eta, Ermua eta Durango arteko 634 errepede nazionala tranpa bilakatu zen, eta bertan borrokalari asko egin zituzten preso (Irazabal, 2012:209).

Olakuetan (Berriz) atxilotu zituztenen artean zeuden kamioi batean zihoazen gidari eta zauritu batzuk. Kamioilarien helburua zen Trabakuako mendatetik zehar Munitibar pasatzea eta Gernikara heltzea (Irazabal, 2012:209).

Erreketeez Areitioko mendatea eta 634 errepede nazionala Olakuetan (Berriz) kontrolatzen zutenaz, Eibar, Ermua, Mallabia eta Zaldibar ingurutik ihes egiteko bide bakarra zen Ermutik Trabakuako mendatera igotzea, Ziortza-Bolibartik zehar Munitibarrera joatea, gero

⁴ Eibarko Frontean, baina Kalamua inguruan, eta Markinako Frontean egon zirenetariko asko Markinara heltzen ziren eta Lekoiz gainetik Aulestira jotzen zuten, Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitzetik zehar Gernikara heltzeko.

Gernikara, handik Bilbora heltzeko. Horrela, Santamariñazar mendian aurreko egunean borrokatu ziren soldaduak ere Trabakuako mendatetik zehar ihes egin zuten apirilaren 25eko gauean eta 26ko goizean (Beldarrain, 2012:200).

Eibar eta inguruetako posizioetan egon ziren Amuategi, Barakaldo eta Perezagua batailoiak ere Trabakuako bidea hartu zuten apirilaren 25eko iluntzean eta 26ko goizean (Beldarrain, 1980:200).

Fronteetan ez ezik, herrietan ere ez zen giro apirilaren 25ean. Izan ere, frankistek frontetik hurbil zeuden hainbat herri eraso zituzten ehiza-hegazkinekin, soldadu errepublikarren morala ahultzeko eta atzeratzea bultzatzeko helburuarekin.

25ean, Eibarren aurka bonba su-eragileak jaurti zituzten hegazkin frankistek, eta aurreko eguneko bonbardaketan zutik gelditu ziren eraikuntzak deuseztatu zituzten. Ertzainaren txostenaren arabera, apirilaren 24an eta 25ean, Eibarren aurka izan ziren bonbardaketek 74 hildako eta 97 zauritu eragin zituzten.

Markina ere bonbardatu zuten apirilaren 25eko arratsaldean. Guk dakigula, ez zen hildakorik izan, baina Plaza Zaharraren burdinazko estalkia txikitu zuten (Juaristi, 2011:134).

Elorrio ere eraso zuten egun hartan. Ertzainaren txostenaren arabera, apirilaren 22an, 24an eta 25ean Elorrioren aurkako bonbardaketek 24 hildako eta 28 zauritu eragin zituzten.

25ean, borrokek jarraitzen zuten Ermuko frontean, eta herri horren inguruan zegoen zelai bat ere bonbardatu zuten hegazkin italiarrek arratsaldean. Han, aurreko egunean Santamariñazar mendian borrokatu ziren, eta atsedena hartzen ari ziren, 40 bat soldadu hil zituzten, eta hainbat zauritu.


Beldarrainen arabera, 25ean, Aulesti, Iruzubieta, Ziortza-Bolibar, Munitibar eta Muxika ere bonbardatu zituzten (Beldarrain, 1980:200).

Elorrio, Elgeta, Eibar, Markina eta Lekeitioko Fronteak jausten, batailoiak ihesean, herriak ebakuatzeko agintari errepublikarren aginduak⁵, frontetik hurbil zeuden herrien aurkako erasoak, erreketekiko beldurra... egoera latz hartan, elorriotar, eibartar, ermuar, zaldibartar, mallabitar, berriztar, markinar, xemeindar eta bolibartarrak ihesari ekin zioten. Nagusiki abertzaleak, ezkertiarak edo errepublikazaleak izan ziren apirilaren 24tik aurrera ihesari ekin ziotenak, baina, oro har, herritar zibil askok (kasu askotan familia osoak) utzi zituzten euren herriak eta etxeak. Beraz, zibil asko izan ziren Trabakuako mendatera heldu zirenak, Gernika eta handik Bilbora heltzeko helburuarekin. Horien artean zeuden Munitibarko bonbardaketa jasan zuten Ermuko Ostolaza-Larrinaga familia.

Zaldibarko Aranguren Erdikoa baserriko Pedro Gallastegi (9 urte) eta bere lehengusina Angela Otadui (25 urte), Aranguren Gain eta Ortakune baserrikoekin batera, apirilaren 24tik 25erako goizaldeko lauetan atera ziren etxetik, erreketeen etorrerarekin beldurtuta. Guztien helburua zen Gernikara heltzea. Apirilaren 25eko arratsaldeko ordu biak eta ordu biak eta erdiak artean heldu ziren Munitibarrera. Gaua pasatzeko etxea aurkitu eta bazkaldu ostean, ihesi zihozten soldaduak ikustera atera ziren etxe aurrera. Horrela deskribatu zuen Pedro Gallastegik gerlari errepublikarren ihesaldia:

⁵ Berriz eta Zaldibar uzteko agindua apirilaren 24an eman zuten agintari errepublikarrek, Mallabia 25ean eta Garai 26an (Irazabal, 2012:209).

(apirilaren 25ean)... juen giñanaren andrien etxera eta bazkaldu gendun: arrautzak eta ogixe esniaz artu genduzen. Eta atera urten gendun automobilek eta ikusten: eriduek, kañoiek eta milizianuek paseten zien da (Bidasoa, 2005:350).



Iturria: norberak moldatua, Mendikat web orritik lortutako mapa erabiliz (<https://www.mendikat.net>)

3. 1937ko apirilak 26 (astelehena): milaka soldadu eta miliziar Gernikarako bidean

Pablo Beldarrainen arabera, apirilaren 26an, Elgeta, Eibar, Elorrio, Markina eta Lekeitioko Fronteetan borrokatu ziren 20.000 bat gudari eta miliziano izango ziren Gernika txikitu ostean, Erreteriko zubitik Gernikan sartu zirenak⁶. Lekeitioko Frontean (Berriatuko lurretan) zeudenak Lekeitiora jotzen zuten eta handik Gernikara (Juaristi, 2014:178-181). Markinako Frontean eta Eibarko Frontean zeudenetariko asko Markinatik Aulestira abiatzen ziren, gero Munitibarrera eta handik Gernikara (Juaristi, 2011). Elgeta, Eibar eta Elorrioko

⁶ Beldarrainek dioten bezala: “La mayoría de los hombres de los 10 Batallones procedentes del monte Askonabieta (Elgeta), de Eibar y de Santa Marinazar (ladera de Elorrio) que, al tener cortada la retirada hacia Durango lo hacían por la carretera de Trabakua, no habían llegado a Gernika antes de ser bombardeada. Tampoco buena parte de la artillería de Eibar y Elgeta, unas 10 piezas, pasando por el mismo camino de Trabakua, no había otro: los dos obuses Sneider de 15,5 se hallaban en Arbazegi, a 14 km de Gernika al momento de su destrucción, y llegarían esa noche entrando por el puente de Rentería que no había sido tocado por las bombas.

También escaparían de la zona de riesgo de copamiento por dicho puente, después del bombardeo, los otros nueve o diez batallones del frente abandonando Eibar-Markina-Lekeitio, como su artillería correspondiente: 2 cañones Saint Chamond de 7,5 y 2 cañones de 15. Estos cañones de 15, que mandaba el Teniente José Antonio Urgoitia, llegaban a Gernika, a través del puente la noche del 27.

Sumando los escalones de ingenieros, intendencia, sanidad, transmisiones...serían quizá, unos 20.000 hombres, con todo su material, los que pusieron sus pies en las ruinas de Gernika entrando por el puente de Rentería.” (Beldarrain, 2012:208).

fronteetan egon zirenak Ermutik Trabakuako mendatera heltzen ziren, eta Iruzubieta, Ziortza-Bolibar, Munitibar eta Arratzu pasatu ostean, Gernikara heltzen ziren (Beldarrain, 1980:208)⁷.

Izugarria izan omen zen ihesaldia: milaka soldadu, armaz kargaturiko abereak, autoak, kanoiak, kamioiak... guztiak ihesean, ordenarik gabe, anarkia osoan, arrapaladan eta noraezean. Beldarrainek ondo deskribatzen du gerlari errepublikarren exodoa:

Batallones fragmentados, sin dirección, nerviosos y fatigados. (...). Haciendo alto en las localidades de Bolivar, Arbazegi o Gernika, sus jefes daban la novedad y esperaban instrucciones con lamentable pérdida de tiempo y oportunidades. A su paso, nadie, con autoridad reconocida, de mandos intermedios hasta el Estado Mayor General, que les dirigiera sobre el terreno. El coronel Vidal con su puesto de mando en Durango, como jefe de tal frente tambaleante y alargado (Oiz inguruari buruz ari da), que debía atender a muchas partes, no estaba en ninguna (Beldarrain, 1980:196).

Ihesaldia oztopatzeko, ehiza-hegazkin alemaniar eta frankistak etengabe aritu ziren soldaduak bonbardatzen eta metrailatzen. Hasteko, goizean goizetik, Munitibar bonbardatu zuten. Hemendik hasita, egun osoan zehar soldadu errepublikarrek igaro behar zituzten tokiak, hau da, Markinatik Gernikara arteko bide, auzo eta herriak ere bonbardatu zituzten, baita Munitibar eta Oiz mendiaren inguruak ere.



Iturria: norberak moldatua, Mendikat web orritik lortutako mapa erabiliz (<https://www.mendikat.net>)

4. Munitibarren aurkako lehen bonbardaketa

Munitibar hainbat aldiz bonbardatu eta metrailatu zuten 1937ko apirilaren 26an. Lehen eraso goizean goizetik izan zen -gure ustez, 7:30ak inguruan-, eta Gasteizko aerodromotik aterata ziren Junkers motako hegazkinek burutu zuten.

⁷ Amuategi batailoiko fusilaria zen Luis Maria Azpiriren arabera, 10.000 edo 15.000 gudari eta miliziano izango ziren ihesean (Azurki, 2011:184).

Kondor Legioko buru zen Wolfram von Richthofen-en egunerokoan irakurri daitekeen bezala, apirilaren 26an, goizeko seietan, Juan Vigon-ek, Nafarroako Brigaden buruak, eta Wolfram von Richthofen berak telefonoz hitz egin zuten, eta berehala, Kondor Legioaren Junkers Ju 52 bonba-hegazkinen⁸ taldea (Kampfgruppe K/88 izenarekin ezagutzen zena) Gasteizko aerodromotik atera zen Arbatzegi eta Gerrikaitz bonbardatzera. Richthofenek argi adierazi zuen helburua ihesean zihoazen soldaduak jazartzea zela:

Después de una breve información acerca de la situación, que me da por teléfono Vigón a las seis, el K/88 es mandado a atacar Guerricaiz, dos aldeas⁹ en el cruce de vías al Oeste de Marquina, para hostigar la retirada roja. (...)

A las siete, Vigón me expone la siguiente situación:

La 1ª brigada ha ocupado ahora la vertiente este del Oiz y sigue avanzando hacia Guernica (al norte), y debe tomar Durango desde el noroeste. La presión sobre el norte será muy débil, al estar las tropas bastante cansadas y con su derecha totalmente al descubierto a causa de que la 4ª brigada permanece en sus posiciones (estoy contento de esto último, porque el enemigo, entonces, quedará fijado aquí y con sólo una pequeña presión que haga la 1ª brigada puede ser embolsado).

La 4ª brigada (...) no avanzó sobre Eibar, como se le había ordenado (...). Hoy fue ocupado tempranamente, sin combate. Ahora se debe atacar avanzando sobre Marquina y hacia el Oeste.

Empleamos inmediatamente A/88 y J/88 de caza sobre las carreteras de la zona de Marquina-Guernica-Guerricaiz. Los K/88 (tras volver de Guerricaiz), los VB/88 y los italianos, con dureza, sobre carreteras y puente (arrabales inclusive) al este de Guernica. Allí hay que culminar, ha de conseguirse finalmente un triunfo contra personal y material enemigos. Vigón empeña su palabra de que imprimirá a sus tropas un ritmo tal, que todas las carreteras al sur de Guernica quedarán bloqueadas (Salas, 1987:209-210).

Esan dugu Munitibarren aurkako Junkers motako hegazkinak burutu zuten lehen bonbardaketa 7:30ak inguruan izan zela¹⁰. Hori pentsatzeko arrazoia da Juan Vigonek eta Wolfram von Richthofenek goizeko seietan hitz egin ostean atera zirela hegazkinok Gasteiztik. Bestetik, bonbardaketa hori bizi izan zuten guztiek diote argitu eta gutxira izan zela txikizioa¹¹, eta, apirilean, 7:20 inguruan egun argitzen du.

Kirikiño batailoiko gudariak Intxortak utzi ostean, Zenika (Zeinke) Ziortza-Bolibarko auzoaren inguruan zeuden 26ko goizean, Oiz ostetik hegazkin frankistak agertzen ikusi zituztenean. Handik gutxira, Gerrikaitz eta Arbatzegi bonbardatzen entzun zuten. Horrela kontatzen zuen gertaera Santiago Onaindiak, Kirikiño batailoiko kapilauak, Oroi-Txinpartak liburuan:

Bidean barrena oker-une batzuk egiñaz, or Zenika auzune alaia, eskoitik. Laster da Munitibar. Zer ete? Motor otsa Oiz ostetik. Goiz dabiltz, etsaiak ba' dira, arrapariok! Illuna urra, zabal eguna. Egazkin batzuk burrun-burrun, naikoa beetik. Gerrikaitz eta Arbatzegi bonbaz erreten diarduela

⁸ Junkers Ju 52 hiru motorreko hegazkin alemaniarra zen, 1931tik 1952ra egin zena. Gerra hasi zenean, alemaniarrek frankistei laguntzeko bidali zituzten lehenengotariko hegazkin mota izan zen. Bonbardaketetarako zein garraiorako erabili zen.

⁹ “Dos aldeas” esaten du, Munitibar bi hirigunek osatzen dutelako: Arbatzegi eta Gerrikaitz.

¹⁰ Antonio Uriguen Retesek, Durangoko Gerrako Defentsarako Batzordeko Presidenteak, zioen 8:30etan izan zela lehen bonbardaketa: “En la mañana de aquel día aviones de caza aparecieron a las 8 1/2 ametrallando las faldas y los barrancos de las estribaciones del Oiz” (Bidasoa, 2005:558).

¹¹ Besteak beste, Luis Maria Azpiri Amuategi batailoiko fusilaria (Azurki, 2011:184) eta Santiago Onaindia, Kirikiño batailoiko kapilaua (Onaindia, 1988:234).

emoten dau. Gu gainbera asi garenerako, aldendu dira Oiz ertzetik. Saio bat izan ete dan gagoz; atzo Elgeta zuzitu ebenak gaur emen geure aurretik (Onaindia, 1988:234).

Herriko plazara helduaz bat ikusi zituzten Kirikiño gudariek aurretik entzun zituzten bonba-hotsen ondorioak:

Arrunta ez dan zerbait jazo da gaur Munitibar'en: ainbat autobus bide egaletan, errian deslai, utsik, jenterik agiri ez dala. Bonbazulo ugari. Illak eta zaurituak jaso dabez. Plazan gagoz. Ez dakigu norantz artu. Gernika'ra ala Ganbe'ra? Ez dirudi gure laguntzarik bear danik. Bada-ezpadan, andik alde egiteko dirauskue, lengo egazkiñak bear bada...Eta guk Gerrikaitz'eko eleiz-ondotik gore Ganbe eta Urretxua'rako bidea artzen. Goitxoan gagozala, or non datorkigun taldeko kamioi bat, gure billa eretxian. Mordo bat aida baten bertara igonik, gertu gagoz aurrera egiteko. Ni be, 'euren apaiz' nazala-ta ez nabe an itxi nai izan. Eta Larra'raiño, neure txoko atsegiñeraino ekarri nabe (Onaindia, 1988:234).

Gernika liburuan, Santiago Onaindiak bonbardaketari buruzko beste aipamen hau ere egin zuen:

Arbazegi eta Gerrikaitz ondo lerkaiz zanpatuta, gu ara eltzerakoan. Jenterik etzan agiri bideetan, geu ezik; bai, ostera, Bilbo-tik gu ordezkatzeko etorritako gudariakaz beteriko autobusak ugari, oneik etziran agertzen, zulo gordeetan ezkutaturik bait egozan. Plazako illak jasoak ziran; baserrietatik ekarrezan beste batzuk. Egazkiñen egiteko zakar!

Baserri erdi-jausi bati, arri, teilla ta ondar artetik kea, aizeak dardaratua, zerion oraindik. Guk, plazan zear pizkat ibilli ondoren, egazkin etsaien beste erasoren bat izan leitekela-ta, Gerrikaitze-ko eleiz ondotik gora artu genduan. Bonba zuloak nai-non. An jausi ziranak etziran, ez, makalak! (Onaindia, 1987:71-72).



Santi Onaindia (Amoroto, 1909 – Gasteiz, 1996) Kirikiño Batailoiko kapilaua. Iturria: www.diariovasco.com

Hainbat zibil eta soldadu hil ziren goiz hartan Munitibar inguruan. Ez dakigu zenbaki zehatzik, baina Mathieu Corman (Belgika, 1901 – Belgika, 1975), Parisko Ce Soir egunkariko kazetaria, eta George Lowther Steer (Hegoafrika, 1909 - India, 1944) kazetari hegoafrikarra eguerdi ostean heldu ziren Munitibarrera, eta lau hildako ikusi zituzten eliza inguruan (Steer, 2002:287- 289).

Santiago Onaindiak aipatzen duenez, herriko plazan zein baserrietan izan ziren hildakoak (Onaindia, 1987:71-72). Ez du aipatzen Kirikiño batailoiko gudaririk hil edo zauritu zenik.

Amuategi batailoiko fusilaria zen Luis Maria Azpiri eta batailoiko beste miliziano batzuk ere goizean heldu ziren Munitibarrera, eta hainbat hildako ikusi zituzten frontoian¹²:

Como nos retiramos de noche, cuando amaneció, en el camino a Gernika nos bombardearon fuerte. Como sabían que se había retirado todo el frente y la única carretera era aquella, nos atacaban los cazas: igual seríamos diez mil o quince mil hombres de todo el frente retirándonos. Veíamos que venían los cazas y nos echábamos a los costados. Bajaban, ametrallamiento y eso... Disparaban sobre todo a vehículos, porque la intendencia y toda la documentación del batallón iba en camiones. ¡Bombas también! Donde había concentración de tropas echaron bombas: en el camino, cuando llegamos a Munitibar, en el frontón había muchos muertos, cadáveres de milicianos. Lo habían bombardeado, se conoce. ‘Cazaron’ a muchos, porque había cantidad de muertos. Porque allí les habían cogido a camiones que venían con abastecimiento (Azurki, 2011:184).

Beraz, goizeko bonbardaketa eta metrailatzeen ondorioz, hainbat hildako izan ziren frontoian, Arbatzegiko eliza inguruan eta baserrietan. Gure ustez, orduan hil zituzten frontoian intendentzia antolatzen ari ziren bi soldadu: Froilan Cuberos Quintana CNT-ko militante bilbotarra eta Antonio Zuaznabar Mendizabal Donostiarra (Urgoitia, IV:262 eta Azurki, 2011:184); biak Intendentzia Militarreko soldaduak.

Hildakoez gain, Kondor Legiokoek jaurtitako bonbek zulo ikaragarriak egin zituzten soloetan. Besteak beste, aipagarria da Garro auzoko Txikitone baserrikoa. Behin frankistek sartu ostean, alemaniarrek ere etorri omen ziren zulo ikaragarri hura ikustera.

Santiago Onaindiak ere bi liburutan aipatu zituen bonbek eragindako zuloak: “Bonba zuloak nai-non. An jausi ziranak etziran, ez, makalak!” (Onaindia, 1987: 71-72) eta “Bonbazulo ugari” (Onaindia, 1988: 234).

Mathieu Corman eta George Lowther Steer kazetariak Gernikan egon ziren goizean, eta eguerdi ostean, Markinara zihoazela, arratsaldeko eraso hasi baino apur bat aurretik, goizeko bonbardaketen ondorioak ikusi ahal izan zituzten. Haietako bat txundituta gelditu ziren bonbazuloen tamainarekin. Cormanek zazpi metroko sakonera eta 15 metroko diametroa zuten bonbazuloak aipatzen ditu (Aguirre, 1979:136; Steer, 2002: 287- 289). Baliteke Cormanek eta Steerrek euren kroniketan aipatzen dituzten zuloetariko bat Txikitone baserrikoa izatea.

¹² Akondia, Santa Kurutz, Kalamua eta Eibar babesten egon ziren Amuategi batailoiko milizianoek ere 1937ko apirilaren 25eko gauen utzi zituzten fronteko posizioak, eta Gernikarantz abiatu ziren, handik Bilbora heltzeko helburuarekin. Aginaga auzotik eta Urko menditik zehar, Iruzubietara heldu ziren, gero Bolibarrera eta 26ko goizean Munitibarren zeuden (Gutierrez, 2007:143-144).



George Lowther Steer (Hegoafrika, 1909 - India, 1944)

Goizeko lehen bonbardaketa gertatu eta gutxira, Munitibarko biztanleak etxeak utzi eta ezkutatu egin ziren. Herria hutsik gelditu zen. Garai hartan umeak izan ziren guztiek gogoratzen dute egun guztian zehar hegazkinak herriaren gainetik ibili zirela, han eta hemen bonbak botatzen, baita mendian ezkutatuta egon zirela, ilundu zuen arte.



Mathieu Corman 1934. urtean (Belgika, 1901 – Belgika, 1975)


5. Oiz mendia hartzeko eraso

26ko goizean, erreketek Zengotitaganera, Trabakuganera eta Trabakuako mendatera heldu ziren, tirorik bota gabe; eta goizeko 10:00ak edo 11:00k inguruan, Oiz punta eta inguruak

bonbardatzen hasi ziren, kanoien bidez, han gotortuta zeuden Rosa Luxenburgo batailoiko eta Santanderina brigadako milizianoen erresistentzia deuseztatzeko helburuarekin¹³. Dena dela, horiek ezin izan zieten behar bezala erantzun erreketeei, hegazkin alemaniarrek gainean zituztelako¹⁴. Esan bezala, Kondor Legioa goiz osoan zehar aritu zen Oiz mendiaren punta eta inguruak bonbardatzen eta metrailatzen (Bidasoa, 2005:558).

Eguerdi aurretioxan, erreketeeek botatako obus baten metrailak Luis Arenal de la Riva Algortako tenientea hil zuen; eta 12ak inguruan, beste obus batek Policarpo Magdalena Tondon teniente bilbotarrari hanka moztu zion, eta hil egin zen (Urkijo, 2014:212).

Erreketeeek apirilaren 26an konkistatu zuten Oiz mendia (Salas, 1987:259). Biharamunean, 27an, beste bi soldadu hil ziren han: Jose Gomez Vazquez eta Justo Soto Requibato. Lehenengoa Arrosa batailoikoa zen.



Iturria: norberak moldatua, Mendikat web orritik lortutako mapa erabiliz (<https://www.mendikat.net>)

¹³ Irazabalek dioten bezala, Rosa Luxenburgo batailoiarekin batera, Berriztik gora Oiz mendirantz zihoazen erreketeeak gelditzeko ahaleginetan, beste batailoi eta konpainia batzuk ere parte hartu zuten: “Ahalegin horretan, Lenago il batailoia Bolibarren kokatu zen, eta Meabe n° 2 Oiz mendian, Sarrimendi-Andikoa ertzean. Santanderina brigadak eta Rosa Luxemburgo batailoiko bi konpainiek ere posizioak hartu zituzten Oiz mendian” (Irazabal, 2011:214). Antonio Uriguen Retesen, Durangoko Gerrako Defentsarako Batzordeko Presidentearen, arabera, 5.000 bat miliziano egongo ziren Oiz mendian, aurreko egunean gotorlekuak egitera joanak (Bidasoa, 2005:558).

¹⁴ Beldarrainek dioten bezala: “La mañana del 26 (el bombardeo de Gernika sería por la tarde), la infantería enemiga ascendía impunemente las arboledas de la falda de Zengoitagane, por donde debimos nosotros su contención. Arriba, los destacamentos enviados por los caminos de Garai o Maguna, se evaporaron en la larga cumbre de Oiz, completamente pelada, al no poder quitarse de encima aviones rebeldes” (Beldarrain, 2012:196).

6. Markinatik-Gernikara arteko bideen eta herrien aurkako erasoa

10:30etatik aurrera, Kondor Legioko ehiza hegazkinak (A88¹⁵ eta J/88¹⁶) Markinatik Gernikara arteko bidea eta bide horren harian dauden herri, auzo eta baserriak eta, esan bezala, baita Oiz mendiaren inguruak ere bonbardatzen eta metrailatzen aritu ziren (Bidasoa, 2005:558, Urgoitia, IV, 279 eta Salas, 1987:209-210).

12:30etan Logroñotik eta Leonetik aineratu ziren Breguet XIX hegazkin frankistek¹⁷ Markina inguruak bonbardatu zituzten eguerdi inguruan (Urgoitia, IV:279), Akondia eta Urkoko posizioetatik eta Eibarreko frontetik Markinarantz ihesean zihoazen soldadu errepublikarrak jazartzeko helburuarekin. Salasek dioen bezala:

A las 11,30 el Estado Mayor pide otra acción en apoyo de la IV Brigada, que tiene ante sí una fuerte concentración enemiga en el monte Urco, al norte de Ermua y Eibar, en dirección a Marquina. Para cumplir esta orden despegan una hora después los Breguet-XIX de Logroño y León, que no observan enemigo en la carretera Eibar-Marquina y bombardean 'un caserío y un pequeño bosque situado en las inmediaciones de Marquina (Salas, 1987:126-127).

Ez dakigu aipatutako bonbardaketa hartan edo atzeraka zihoazela erreketeeekin izan zituzten tiroketen ondorioz izan zen, baina apirilaren 26an, Castilla batailoiko 9 miliziar hil ziren Markinako lurretan¹⁸. Kontuan izan behar da Castilla¹⁹ eta Otxandiano²⁰ batailoiek Kalamuko frontean zeuden soldaduen atzeraldia babestu zutela.

Trabakuatik behera ihesean zihoazen gudari eta miliziarrek Iruzubieta auzoko zubitik pasatu behar ziren Ziortza-Bolibarrera heltzeko. Auzoko herritarren arabera, Kondor Legioko hegazkinak askotan saiatu ziren Iruzubietako zubia apurtzen, baina arrakastarik gabe. Bonbetariko asko zubitik hurbil dagoen Altza baserrien basoetan lehertu ziren.

Bestalde, Jose Egiguren Anituak kontatzen duenez, Ziortza-Bolibarko Zeinke auzoa ere bonbardatu zuten goiz hartan. Ez zen inor hil, baina bonbetariko bat Luzar baserriaren teilatua

¹⁵ *Aufklärungsstaffel A/88* lau eskudroi zituen errekonozimendu taldea zen. Guztira Heinkel He 70 18 hegazkinez eta Heinkel He 45 6 hegazkinez osaturik zegoen.

¹⁶ *Jagdgruppe J/88*: Heinkel He 51 48 ehiza hegazkinez osatutako lau eskudroik osatzen zuten.

¹⁷ Breguet 19 (Breguet XIX, Br.19 edo Bre.19 izenekin ere ezaguna), bonba-hegazkin arina zen, Frantziako Breguet konpainiak egina 1920 inguruan. Gerra zibilean, errepublikarrek zein zibilek erabili zuten.

¹⁸ Julio Garcia Alvarez santurtziarra, Victor Garcia Ortega burgostarra, Jesus Gonzalez Ibarlucea, Hilario Mendez Caño Oreretakoa, Jose Zamora Fernandez kubatarra, Jose Ramon Ballina Gonzalez Portugaletakoa, Jose Laskurain Galarza Oreretakoa eta Felix Rivas Lazaro bilbotarra eta Alejo Ayarza Aristigieta.

¹⁹ Castilla batailoia (JSU - Juventud Socialista Unificada) Gaztelan jatorria zuten etorkinez osatua zegoen. 1936ko urrian, Lekeitioko frontean egon zen (Vargas Alonso, datarik gabe - II:160). 1937ko urtarriletik apirilaren 26ra arte, Etxebarria eta Kalamua arteko posizioak babestu zituzten. Markinako karmeldarren komentuan koarteleratu ziren. 1937ko apirilaren 22an, 599 gudari zituen Markinako Frontean (Gutierrez, 2007: 128).

²⁰ Otxandiano batailoia (EAJ) 1937ko otsailaren 3an, batailoia Markinako Frontera etorri zen, eta Abellaneda batailoien tokia hartu zuen, Kalamuaren oinetako frontean. Markinako Frontean egon zen, guda lerroa apurtu zen arte, 1937ko apirilaren 27an (Mendizabal, Lasa, eta Agirre, 2006: 74). Castilla batailoiarekin Otxandiano batailoiek babestu zuen soldadu errepublikarren atzeraldia Markinako eta Lekeitioko frontetatik. Otxandiano batailoien komandantzia Urberuagako bainuetxean (Markina-Xemein) egon zen aurrenengo, eta gero Munibe jauregian (Etxebarria). Intendentzia Uhagon etxean jarri zuten. 1937ko apirilaren 22an, 626 gudari zituen Markinako Frontean (Gutierrez, 2007: 128)

apurtu, eta etxe barrura sartu zen; baina, zortea lagun, simaur piloan jo zuen, eta ez zen lehertu (<http://ahaztuenoroimena.com/2013/12/14/jose-egiguren-anitua>).

Markina eta Ziortza-Bolibarrekin batera, Arratzu ere bonbardatu zuten 26ko goizean. Ertzainaren txostenaren arabera, Arratzun pertsona bat hil zuten eta bi zauritu. Zaurituetariko bat Inocencia Maiz Mendiguren izan zen. Inocenciak 37 urte zituen, ezkondua zegoen, donostiarra zen jaiotzez, baina Arratzun bizi zen. Euzkadi egunkarian irakurri daitekeen bezala, larri zaurituta eraman zuten ospitalera (Euzkadi, 1937-4-26). Juanita Bilbao Olabarriagak dioen legez, bonbetariko bat plazan jauzi zen, eta leherketak soldaduek gerrako materialarekin kargatuta zituzten abereak hil zituen (Juanita Bilbao Olabarriaga, <http://www.ahotsak.eus>).

Bonbardaketa eta metrailatzen horien guztien helburu garrantzitsuena zen ihesean zihoazen gudari eta miliziarrek jazartzea, baita herritarrak izutzea ere. Pablo Beldarrainek zioenez:

Los gudarís, con los pies llagados y desalentados ante la total indefensión, no podían hacer otra cosa que seguir por Bolívar y Arbazegi a Gernika, a menudo saliéndose de la carretera para esquivar ráfagas de metralla. Algunos camiones quedaban tocados en la carretera y los caseríos y aldeas eran blanco de los aviones para atemorizar a la gente (Beldarrain, 1980:200).

Richthofen-en egunerokoaren arabera, Kondor Legioaren Heinkel He 70²¹, Heinkel He 45²² (Aufklärungsstaffel A/88) eta Heinkel He 51²³ hegazkin arinek burutu zituzten bonbardaketa eta metrailatze horiek. Urgoitiak ere aipatzen du hegazkin arinek burutu zituztela ekintza horiek (Urgoitia, IV:279).



Wolfram von Richthofen (1895-1945), Kondor Legioko burua. Iturria: Wikipedia

²¹ Heinkel He 70 30eko hamarkadan Alemanian ekoiztu zen eta bidaiariak eramateko erabiltzen zen hegazkin arina zen. Ikuskapenak egiteko eta bonbardaketetarako ere erabili zen. Era honetako 28 hegazkin bidali ziren Espainiara Kondor Legioarekin Espainiara. Hegazkin arinak zirenez Rayo ezizena eman zitzaien.

²² Heinkel He 45 30eko hamarkadaren hasieran Alemanian ekoiztu zen bi ezarleku zituen hegazkina izan zen. Ikuskapenak egiteko zein bonbardaketetarako erabili zen. *Luftwaffe* erabiltzen hasi zen lehenengotariko hegazkin mota izan zen.

²³ Heinkel He 51 ezarleku bakarra zuen bi motorreko hegazkina zen.

Hugo Sperrlek “Sander”-ek, Condor Legio alemaniarren komandanteak, apirilaren 26ko gaueko komunikatuan zihoenez, goizean zehar ehiza hegazkin alemaniarrek etengabe aritu ziren Oiz mendiaren iparraldeko bideak, alegia, Markinatik Gernikara arteko bideak, bonbardatzen eta metrailatzen:

Las tropas blancas avanzan sobre Marquina. Los blancos han ocupado Monte Oiz. Entran en Durango tropas blancas procedentes del Sur, Este y Norte. Todas las unidades de vuelo de la Legión Condor operan repetidamente contra el enemigo en retirada por las carreteras al Norte del Monte Oiz y el puente y carreteras al Este de Guernica (Salas, 1987:259).



Hugo Sperrle “Sander” (1885-1953), Kondor Legioko komandantea. Iturria: wikipedia

Mendatako Orbelaun baserrian bizi zen Bitoriano Gandiagak ere entzun zituen egun osoan zehar Markina ingurutik Gernikara zihoazen soldaduen aurkako bonben eta metraileta tiroen hotsak:

Tiro hots handia zerabilten. Ametralladoren takarrada Markinatik Gernikarako errepide gainean zehar, bomba bumbak ere bai han eta haruntzago bide beraren harian, eta urrunago, harri zaparrada hala, dena-baterako bomba eta tiro zarrasta (Gandiaga, 1987:72-76).

Jose de Labauriak, Gernikako Alkateak, ere Markina eta Gernika arteko bidean hegazkin alemaniarrek egin zituzten joan-etorriak aipatzen ditu (Bidasoa, 2005:603):

En la mañana del 26 se vieron muchos aviones hacia el lado de Mendata y Arbacegui. Muchos temían hubiese algún bombardeo en Gernika aquel día.

7. Oiz mendiaren mendebaldeko herrien aurkako bonbardaketak

Markinatik Gernikara arteko bidea eta bide horren arian dauden herri eta auzoak (Markina, Iruzubieta, Ziortza-Bolibar, Zeinke, Munitibar eta Arratzu) bonbardatzeaz gain, Oiz mendiaren mendebaldean dauden herriak ere eraso zituzten apirilaren 26ko goizean.

Muxikako Muniketa auzoko biztanleak 11:30etatik 12:00etara bitartean metrailatu zituzten ehiza hegazkinek. Antonio Uriguenek zioen bezala:

Los cazas nos ametrallaron aquella mañana en Muniketa, entre Astei y la taberna de Muniketa: estábamos mi hermana, dos niños del caminero de Astei, el criado del ganadero Álvaro Canales (de Durango) y yo. Nos metimos en el pinar que hay en aquel sitio, y nos defendimos junto a los troncos de los árboles (Bidasoa, 2005:558).

Euzkadi egunkariaren arabera (Euzkadi, 1937-4-28), Errigoiti ere bonbardatu zuten goiz hartan. Gernika-Bizkaia 1937-2012 75 urte gogoan txostenaren arabera, Errigoitin 5 pertsona hil zituzten eta 13 zauritu²⁴. Horietariko bat 19 urteko Hilario Ugalde errigoitiarra izan zen. Oso larri zaurituta eraman zuten Basurtoko erietxera (Euzkadi, 1937-4-28).

8. Munitibarren aurkako eguerdi osteko bonbardaketa

Frankistek apirilaren 26ko gerrako ekintzen laburpenean adierazten zuten bezala, Junkers Ju 52 bonba-hegazkinekin osatutako taldeak (Kampfgruppe K/88) bitan bonbardatu zituen Arbatzegi eta Gerrikaiz:

Resumen de las operaciones del día 26 de abril de 1937: Frente Norte: En León, Navía, Logroño, no se actuó.

Vitoria.- Los Breguet y los Heinkel 45, un servicio al puente de Guernica. Los Junkers, dos servicios sobre Gerraiz y el puente de Guernica, punto de paso en la retirada enemiga (Salas, 1987:51).

Goian esan bezala, Junkers Ju 52 bonba-hegazkinen taldearen lehen bonbardaketa goizeko 7:30ak inguruan izan zen, eta bigarrena eguerdi ostean. Hegazkin talde horren egunerokoaren arabera, eguerdi osteko eraso hori ordu biak inguruan izan zen²⁵.

Jaime Urkijok dioten bezala, eguerdi ostean, Oiz mendian zeuden Rosa Luxenburgo batailoiko miliziarrek ehiza hegazkinak ikusi zituzten, Gasteiz ingurutik hurbiltzen; baita Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaiz bonbardatzen ere. Ehiza-hegazkinek helburua zehazten zuten, eta bonba-hegazkinek bonbardatzen:

Subimos algo cuesta arriba para ver de qué puntos venían los aviones y los puntitos que advertimos traían la dirección de Vitoria (...). Los cazas se perfilaban en el horizonte y su ronroneo torpe y pesado nos llegaba perceptiblemente. Seguíamos sus evoluciones en dirección hacia Arbecuegui-Guerraiz. Aquellos mosquitos tan aparentemente insignificantes, pero tan mortalmente eficaces, recorrían de pasada todo el valle y señalaban a sus compañeros seguidores para que descargaran su mensaje de muerte y desolación.

Llegaron los tranvías²⁶ con sus panzas llenas de bombas y su vuelo lento, torpe y pesado, pero regular e inflexible. Al ver que los cazas giraban principalmente sobre Guerraiz, dijo el Cashero:

Mira, parece que ya han escogido objetivo, vaya chaparrón que se les prepara a estas pobres gentes.

En efecto, tal como lo dijo, los tres primeros bombarderos, unos ‘Junker 52’ de formación en punta, largaron toda la carga de un solo golpe, iniciando un viraje para volver al punto de salida.

²⁴ Errigoiti errepublikarren eskuetan egon zen 1937ko maiatzaren 10era arte. Sollubeko gaina konkistatzera zihoazen Nafarroako V. Brigadak hartu zuen.

²⁵ Zubikarai diotenaren arabera, arratsaldeko ordu bietan izan zen (Zubikarai, 107. Orrialdea) eta Salas-en arabera, ordu biak laurden gutxiagotan (Salas, 1987:126).

²⁶ Steerek Bonba-hegazkinei “tranbiak” deitzen zieten.

Oímos una serie de explosiones y todo quedó cubierto por una enorme nube de color rojizo. No había duda por el volumen de la nube, el color de ella y la dimensión de los aparatos, que estaban destruyendo el edificio de la iglesia.

Los cazas seguían revoloteando a la misma altura, es decir unos 1000 metros, mientras que los tranvías andarían entre los 500 y 600 metros. Ellos solitos, sin ninguna oposición, sin adversarios que les obstaculizasen y eligiendo sus objetivos a placer.

Al llegar el segundo trío de bombarderos, los cazas, a fuerza de evoluciones y guiándoles, debieron de indicarles otros objetivos, pues pasaron sobre Guerricaiz y Arbacegui, no largaron ninguna bomba y se desviaron más al oeste. Nosotros seguíamos intrigados viendo la evolución de aquellos aparatos y preguntándonos qué es lo que buscarían. El Cashero decía:

- Me parece que estos andan a la búsqueda de fuerzas, que retiradas del frente de Eibar arrastran consigo a los nuestros emplazados más a la retaguardia (Urkijo, 2014:215-216).

Mathieu Corman, Parisko Ce Soir egunkariko kazetaria, eta George Lowther Steer kazetari hegoafrikarra Gernikan egon ziren goizean, eta Markinarako bidean, Munitibarren aurkako bonbardaketak harrapatu zituen bete-betean.

13:00tak baino arinago heldu ziren Munitibarrera, eta goizean zehar izan ziren bonbardaketen ondorioak ikusi ahal izan zituzten: esan bezala, eliza inguruan lau hildako eta bonbek eragindako zulo izugarriak ikusi zituzten. Bonba-zuloak ikuskatzen ari zirela, ordu biak inguruan, ehiza hegazkin alemaniarrek hainbat aldiz metrailatu zituzten. Gertatutakoa oso ondo azaldu zuen George Lowther Steerek bere El Arbol de Gernika liburuan:

Aquella tarde nos habían comunicado por medio del Estado Mayor Vasco, el bombardeo de Markina, Bolívar, Arbazegi y Guerrikaiz. Todos los pueblos, en el camino de nuestro regreso habían sido arrasados.

La destrucción de Arbazegi obstaculizaba nuestra vuelta a Markina. Cerca de la iglesia había cuatro muertos. A lo largo de la carretera, dos caseríos habían quedado esparcidos en escombros humeantes. Pasamos sobre ellos y descendimos por el otro lado, en dirección al campo, donde vimos los hoyos de las bombas más enormes que habíamos visto en nuestra vida, aún calientes y apestando a metal fundido. Tenían siete metros de profundidad y catorce de diámetro. Eran verdaderos cráteres lunares. Nos quedamos atónitos mirándolos. De repente, en la pequeña iglesia de la ladera del monte comenzó a repicar la campana.

Dos viejos sacerdotes²⁷ y algunos habitantes del pueblo corrían a trompicones sobre los escombros y cuajos de hierba verde arrancados por las bombas. Se refugiaron bajo la torre de la iglesia. Se hizo el silencio en el pueblo. No se veía a nada ni nadie: solo las llamas que consumían algunas casas y, en las paredes, los manchones grises del fuego.

De repente sobre la colina del noroeste, procedentes de Gernika, venían seis cazas en formación. Se acercaban muy rápidos, en vuelo horizontal en línea recta. Sus motores producían un ruido que significaba guerra relámpago. A los pocos segundos estaban sobre el pueblo. Volaban tan bajo que se podía ver a los pilotos y advertir, a simple vista, toda clase de detalles, incluso las ruedas separadas, y el morro espigado, característico y exclusivo del caza alemán Heinkel 51.

Christopher Corman y yo pensamos que el mejor refugio eran los embudos de las bombas, y nos metimos en uno, llegando al fondo en dos zancadas. Desde dentro, el agujero parecía menos seguro: era muy ancho y dejaba ver demasiado cielo. Pero, al fin de cuentas, era un agujero y nos tendimos en su parte sombreada, entre terrones de arcilla y fragmentos de bomba.

²⁷ Steerek aipatzen dituen bi abadeak Arbatzegiko parrokoa, Paskasio Etxezarraga, eta Gerrikaitzekoa, Eugenio Arana, izan daitezke.

No había movimiento humano visible en el pueblo, ni tráfico, ni vehículos estacionados en él, excepto nuestro automóvil. No obstante, lanzaron unas cuantas bombas ligeras y ametrallaron a su antojo el lugar hasta que pensaron, por lo visto, que habían sacudido el polvo de los tejados que aún quedaban.

Dieron varias vueltas y se fijaron en nosotros. Durante quince o veinte minutos se dedicaron a hacernos pasadas a todo gas, lanzándose en picado sobre el embudo, haciendo cantar a sus ametralladoras desde 200 pies de altura. La única salvación, para nosotros, era hacernos los muertos, y nos preguntábamos a veces si no lo estaríamos de verdad. El viejo Corman me estaba contando una larga historia. A mí me hirió en mi dignidad de ciudadano inglés el tener que morder tierra ante la aviación alemana aunque en la cola llevaban el aspa de San Andrés, sobre fondo blanco, distintivo de la “Aviación Nacional” de Franco, pero la verdad es que no se me ocurría otra alternativa de salvación. Era incluso muy difícil pensar.

Había tenido, antes y después, esa misma experiencia de estar bajo el fuego de las ametralladoras, pero jamás fui un blanco tan fácil. Estaba terriblemente impresionado. Mi experiencia debió ser idéntica a la de cualquier joven gudari. El acoso continuo desde el aire no asusta: paraliza. Salimos del hueco muy lentamente, sin mirar demasiado a nuestro alrededor, sin intentar siquiera pensar en el futuro o en el presente. Estábamos listos para cualquier sorpresa.

El terror de la gente del pueblo era real y no medio embrujado, pero sobrehumano, como el nuestro. Dimos la vuelta con nuestro coche, ante el muro en llamas y pudimos comprobar que el coche tampoco había sido alcanzado. Pedimos al chofer que nos condujera rápidamente a Bilbao.

En el camino de regreso tuvimos que detenernos dos veces y esperar a que pasasen aviones enemigos. Ahora se trataba de bombarderos ligeros Heinkel 111 y vimos varios a nuestra derecha, en dirección al valle de Gernika. Al cruzar el paso a nivel oímos el estruendo de un bombardeo más hacia el norte, donde el mar termina y comienza el verde valle. No podíamos ver nada, se interponían unas colinas. Las bombas debían ser lanzadas por los aviones Heinkel 111 que habíamos visto pasar sobre nosotros. Estábamos hartos de impresiones por aquel día y proseguimos nuestro camino a Bilbao sin detenernos, para poder escribir nuestros reportajes. No sabíamos, no nos imaginábamos que el objetivo de la aviación alemana podía ser Gernika (Steer, 2002: 287- 289).

Mathieu Corman-ek, Parisko Ce Soir egunkariko kazetariak, Munitibarren eta Gernikaren aurkako bonbardaketak azaltzen zituen telegraman zioen hegazkinetatik metrailatu ostean, Munitibar 60 bomba su-eragileren eta torpedo pisutsuen bidez txikitu zutela minutu gutxitan (Aguirre, 1979:136):

Escondido en un agujero hecho por un torpedo aéreo con los enviados especiales de The Times y de la agencia Reuter, he podido observar en qué consistía ese infernal bombardeo. Hemos sido ametrallados durante veinte minutos por siete aviones de caza en Guerricaiz. Poco después, este pueblecito era destruido por sesenta bombas incendiarias y torpedos pesados que fueron lanzados en pocos minutos.

Goizean bezala, eguerdi osteko bonbardaketa eta metrailatze horiek soldaduak zein zibilak hil zituzten. Bomba baten metrailak Pedro Gallastegi Atxa, bere lehengusina Angela Otadui Gallastegi eta Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitzeko emakume bat harrapatu zituen (Bidasoa, 2005:349). Lehenengokoa larri zauritua gelditu zen, eta azken biak hilak. Pentsatzen dugu Munitibarko emakumea Matea Bilbao Jaio (Munitibarko Erregistro liburua: 9, 193. Orrialdea) edo Justa Mendibe Artetxe (Munitibarko Erregistro liburua: 9, 173. Orrialdea) izan daitekeela.

Beldarrainek dioenaren arabera, eguerdi osteko bonbardaketa hartan, Kirikiño batailoiak hainbat baja izan zituen. Vargas Alonsok batailoiak 20 bat baja izan zituela dio (Vargas Alonso, 1999:210). Munitibarko bonbardaketan zauritu ziren soldaduetariko batzuk hurrengo egunetan hil ziren. Azken horien artean zegoen Pablo Beldarrain komandantearen anaia, Jose Beldarrain

Olalde, Kirikiño batailoiko kapitaina (Beldarrain, 1980:200-201). Hara nola zer kontatzen zuen Pablo Beldarrainek berak:

Sobre el mediodía la aviación dio una pasada a la carretera y pueblos de la cara Norte del Oiz. En Arbazegi hizo numerosas bajas en el grueso del bon. Kirikiño, una de ellas mi hermano José, capitán de una compañía, y estaba hospitalizado en Gernika, unas horas después, cuando tuvo lugar su destrucción, salvándose de ello para morir poco después en Bilbao a consecuencia de las heridas de Arbazegi y el sobresalto de Gernika. Se dijo que varias decenas de heridos llenaron los hospitales de Getxo (Beldarrain, 1980:200-201).

Eguerdi osteko bonbardaketan, Junkers Ju 52 ehiza-hegazkinek zubi bat lehertu zuten, eta azpian ezkutatuta zeuden hainbat pertsona hil zituzten (Aiestaran, 2006). Zubipean hildakoen artean zeuden Jose Mari Ostolaza Sarasua (Munitibarko Erregistro liburu: 9, 155. Orrialdea), bere emazte Emilia Larrinaga Guenetxea (Munitibarko Erregistro liburu: 9, 156. Orrialdea) eta horien 15 hilabeteko alaba, Julene Ostolaza Larrinaga. Beste alaba, Edurne, zauri larriak izan zituen, baina bizirik atera zen. Arratzuko jatorria zuen pertsona bat ere hil zen zubipean (Juanita Bilbao Olabarriaga, <http://www.ahotsak.eus>).

Arratsaldeko bonbardaketa hartan, Arbatzegiko San Bizente Parrokia kaltetua gelditu zen (Zubikarai eta Fdez Egiguren, 1992:107).

Gernika bonbardatu aurretik, Condor Legioko hegazkinek Muxikako Zugaztieta auzoa ere metrailatu zuten (Bidasoa, 2005:422). Inazio Rezabalek zioenez:

Marchando en tren en las cercanías de Zugaztegieta, vimos volar cerca de nosotros 6 aparatos de caza que bajando a ras de tierra, ametrallaban a todos los que transitaban por la carretera. El momento fue de un pánico indescriptible, mujeres y niños –locos de temor- descendían, amontonándose, del tren. Este se detuvo; la gente se refugió en un pinar y quedé en el coche y desde allí pude contemplar todo el triste espectáculo. Vi caseros que trabajando en los campos y viendo la amenaza de los aviones huían espantados dejando en las plazas aperos y ganado; y percibía los mugidos de las vacas, que heridas por las balas, saltaban y bramaban. Cruzó el cuadro un camión de Intendencia del batallón `Zergatik ez` o `Lenago il`(?), al que persiguió un caza volando sobre él y disparando su ametralladora. Los ocupantes del coche saltaron a tierra: unos se tendieron en la cuneta, otros se guarecieron detrás de los árboles. Gritos de desesperación y de angustia rasgaban los aires. Llegamos a Guernica, después de otra parada en un túnel, parada que obedeció a un nuevo ataque aéreo (Bidasoa, 2005:422).

9. Apirilaren 26ko bonbardaketen kalteak Munitibarren

Markinatik Gernikara arteko bidean dauden herri eta auzoetan egon zirenek asko sufritu zuten 1937ko apirilaren 26an. Gure ikerketen arabera, Markinako lurretan 9 soldadu hil ziren, Oiz mendian bi (biharamunean, 27an, beste bi gehiago) eta Arratzun bat. Edozelan ere, hildako gehien Munitibarren izan ziren.

Pablo Beldarrain komandantearen arabera, Kirikiño batailoiak hainbat baja izan zituen Munitibarren (Beldarrain, 1980:200-201). Vargas Alonsok dio batailoiak 20 bat baja izan zituela (Vargas Alonso, 1999:210). Guk ez dugu aurkitu egun hartan hil zen Kirikiño batailoiko inor. Esan bezala, dakigun gauza bakarra da Pablo Beldarrain komandantearen anaia, Jose Beldarrain Olalde, Kirikiño batailoiko kapitaina, Munitibarren zauritu zutela, eta hurrengo egunetan hil zela (Beldarrain, 1980:200-201).

Bestetik, arestian esan dugu alemaniarren ehiza-hegazkinek zubi bat lehertu zutela Munitibarren, eta azpian ezkutatuta zeuden hainbat pertsona hil zituztela (Aiestaran, 2006).

Leherketa hartatik bizirik atera zen Edurne Ostolazak esaten duenez zubipean hainbat pertsona hil ziren (Aiestaran, 2006:6). Ikerketa gehiago egin beharko dira gertaera hau behar bezala argitzeko, baina guk lortu ditugun datuen arabera, lau pertsona izan ziren zubipean hil zirenak.

Eusko Jaurlaritzako Ertzainek 1937ko ekainaren 9an egin zuten txosten batek dio apirilaren 26an, Arbatzegein, 36 hildako eta 12 zauritu izan zirela²⁸. Gainera, txosten horrek dio hildako kopurua handiagoa ere izan zitekeela²⁹.

Gure ikerketaren arabera, askoz gutxiago izan ziren Munitibarren aurkako bonbardaketetan hil zirenak. Guk hildako 7 zibilen (herritarrak bakarrik bi) eta 4 soldaduren izenak lortu ditugu, baita 9 zaurituenak ere. Hauei Oiz mendian hil ziren bi soldaduak gehitu behar zaizkie (biharamunean, 27an, beste bi soldadu ere hil ziren Oiz mendian). Horrez gain, bi ume galdu ziren, eta galera materialak ugariak izan ziren. Hona hemen hildakoei, zaurituei, galdutako umeei eta kalte materialei buruzko xehetasunak:

Hildako zibilak

1937ko apirilaren 26ko Munitibarren aurkako bonbardaketetan hil ziren hiru zibilen izenak ezagutzen ditugu:

* Angela Otadui Gallastegi: Berrizen jaio zen, baina Zaldibarren bizi zen bere osaba eta izebaren etxean. Erreketeak sartu aurretxoan, Gernikara abiatu zen, bere lehengusu Pedro Gallastegirekin eta Zaldibarko beste baserritar batzuekin batera. 1937ko apirilaren 26ko eguerdiko bonbardaketan hil zen, 25 urte zituela. Bere alboan lo egin zuen etxeko emakumea ere hil egin zen, eta bere lehengusua larri zaurituta gelditu zen (Bidasoa, 2005:349-350).

Munitibarko erregistro liburuaren arabera, herriko bi pertsona hauek ere hil ziren bonbardaketetan:

* Matea Bilbao Jaio (Munitibarko Erregistro liburu: 9, 193. Orrialdea).

* Justa Mendibe Artetxe (Munitibarko Erregistro liburu: 9, 173. Orrialdea).

Gure testigantzen arabera, Garro auzoko Motaburu (Mataune) baserrian hiru pertsona hil ziren. Beraz, baliteke Angela Otadui, Matea Bilbao eta Justa Mendibe baserri hartan hil izana.

Arratsaldeko bonbardaketan, bonba-hegazkinek zubi bat lehertu zuten, eta azpian ezkutatuta zeuden hainbat pertsona hil zituzten. Guk zubipean hil ziren lau pertsonen berri daukagu:

* Jose Mari Ostolaza Sarasua: arrasatearra zen, baina Ermuan bizi zen bere familiarekin (Munitibarko Erregistro liburu: 9, 155. Orrialdea).

* Emilia Larrinaga Guenetxea: mallabitarra zen, Jose Maria Ostolazararekin ezkondua zegoen, eta Ermuan bizi zen (Munitibarko Erregistro liburu: 9, 156. Orrialdea)

²⁸ Kopuru bera agertzen da *Gernika-Bizkaia 1937-2012 75 urte gogoan* txostenean: <http://www.bizkaia.net/home2/Archivos/DPTO4/Noticias/Pdf/OTSAILA%20EUS%20DOKUMENTAL A%20AZKENA.pdf?idioma=EU>

²⁹ Izan ere, txostenean zera esaten da, “(...) de caber alguna modificación habría de ser por omisión de esos partes y por lo tanto en sentido aumentativo siempre”.

* Julene Ostolaza Larrinaga: aurreko bien 15 hilabeteko alaba.

* Arratzuko Errotakoen osaba bat ere hil zen, zubi azpian ezkutatuta zegoela (Juanita Bilbao Olabarriaga, <http://www.ahotsak.eus>).

Zauritutako zibilak

Aipatutako Ertzainen txostenak dio apirilaren 26an, Arbatzezin, 12 zauritu izan zirela. Euzkadi egunkariaren 1937ko apirilaren 28ko aleak 8 zaurituren izenak argitaratu zituen:

* Jose Ignacio de Amesti Jaio, 46 urte, ezkondua, Munitibar-Arbatzezi-Gerrikatzen jaio zen, eta han bizi zen. Larri zauritua. Basurtoko ospitaleko 7. pabilioian ospitaleratu zuten.

* Domingo de Irusta Urionaguena, 86 urte, alarguna, Munitibar-Arbatzezi-Gerrikatzen jaio zen, eta han bizi zen. Arin zauritua. Basurtoko ospitaleko 7. pabilioian ospitaleratu zuten.

* Pedro Arribas Garcia, 49 urte, ezkondua, Medina de Pomar-ekoa jaiotzez, baina Bilbon bizi zen. Larri zauritua. Basurtoko ospitaleko 7. pabilioian ospitaleratu zuten.

* Felipe Jimeno Tejero, 45 urte, ezkongabea, Manzanillo-n (Valladolid) jaioa, baina Bilbon bizi zen.

* Romualdo de Garitaonaindia Etxezarraga, 15 urte, Zalduan jaio zen, eta han bizi zen. Larri zauritua. Basurtoko ospitaleko 7. pabilioian ospitaleratu zuten.

* Francisco Sanz, 47 urte eta ezkondua. Peñafielen (Valladolid) jaio zen, baina Arbatzezin bizi zen. Arin zauritua. Ez zuten ospitaleratu.

* Alejandra Lizundia Jayo, 30 urte eta ezkondua. Zumaian jaio zen, baina Arbatzezin bizi zen. Isileko pronostikoa. Lehen mailako kirurgian ospitaleratu zuten.

* Juana Malaxetxebarria Zuazo, 19 urte, ezkongabea, Arbatzezin jaio zen, eta han bizi zen. Arin zauritua. Ez zuten ospitaleratu.

* Pedro Gallastegi Atxa: bederatzi urte zituen, eta Zaldibarren bizi zen. Erreketeak Zaldibarren sartu aurretik ihes egin zuen bere lehengusinarekin eta auzoko beste batzuekin batera. Gernikara bidean, Munitibarren gelditu ziren lo egiten, eta apirilaren 26ko eguerdi osteko bonbardaketan zauritu zuten. Bilboko San Luiseko ospitalera eraman zuten, eta bi egunetara hanka moztu zioten. Bere alboan bere lehengusina Angela Otadui eta apopilo hartu zituen emakumea hil ziren (Bidasoa, 2005:350).

Hildako soldaduak

Esan bezala, 1937ko apirilaren 24tik 26ra, milaka soldatu pasatu ziren Munitibartik. Haietariko batzuk herriaren aurkako bonbardaketa eta metrailatzeetan hil ziren apirilaren 26an.

Kirikiño batailoiko hildakoak: Intxorta mendietan borrokatzen aritu ostean, batailoiko honetako gudariak apirilaren 26ko egun osoan zehar Munitibarretik pasatzen aritu ziren. Ez dakigu goizean hildakorik izan zuten edo ez. Santiago Onaindiaren, Kirikiño batailoiko kapilauaren, azalpenen arabera, ez dirudi horrelakorik gertatu zenik (Onaindia 1987 eta 1988). Aldiz, badakigu arratsaldean bonbardaketan baja ugari izan zituztela; Vargas Alonsok dioenaren arabera, batailoiak 20 bat baja izan zituen (Vargas Alonso, 1999:210). Arestian esan bezala,

zaurituen artean Jose Beldarrain zegoen, Pablo Beldarrain komandantearen anaia (Beldarrain, 1980:200-201).

Intendentzia Batailoiko hildakoak: Intendentzia Militarren Parkeak fronte guztietan egon ziren, eta euren helburu garrantzitsuena soldaduei jaten ematea zen. Munitibarren intendentziaz arduratzen ziren soldaduak zeuden apirilaren 26an, eta gutxienez haietariko bi hil ziren bonbardaketan (Urigoitia, IV:262): Froilan Cuberos Quintana, CNT-ko militante bilbotarra, eta Antonio Zuaznabar Mendizabal Donostiarra³⁰. Ez gaude ziur, baina pentsatzen dugu frontoian jarri zutela intendentzia eta han hil zituztela. Luis Maria Azpiri Amuategi batailoiko fusilaria goizeko bonbardaketaren ostean heldu zen Munitibarrera, eta frontoian hainbat hildako zeudela aipatzen du, tartean intendentzia lanetan ari zirenak (Azurki, 2011:184).

Gotorlekuak batailoiko hildakoak: Markina, Eibar, Elgeta eta Elorrio ingurutik atzera zihoazela gotorlekuak egiten zituzten ingeniariaren batailoioek Munitibarren aurkako bonbardaketa jasan behar izan zuten. Batailoi honetako soldadu bat hil zen: Calixto Gutierrez Lopez.

Ikerketa agente bat hila: bonbardaketan Julio Lekunberri Sarasketa ikerketa agente eibartarra ere hil zen (Gutierrez, 2007: 261 eta Talon, 1988:626).

Rosa Luxenburgo batailoiko hildakoak: Arbatzegiko eta Guerrikaitzeko guneetatik kanpora, baina Munitibarko lurretan, zehatzago esanda, Oiz mendi puntan, ere hil ziren milizianoak apirilaren 26an. Horiek, ez ziren hegazkinen bonben ondorioz hil, Zengotitaganetik, Trabakuganetik eta Trabakuako mendatetik erreketeek botatako obusen ondorioz baizik. Hildakoak Luis Arenal de la Riva teniente algortarra eta Policarpo Magdalena Tondon teniente bilbotarra izan ziren (Urkijo, 2014:212).

Biharamunean, 27an, beste bi soldadu ere hil ziren Oiz mendian: Jose Gomez Vazquez eta Justo Soto Requiritato. Lehenengoa Arroza batailoikoa zen.

Galdutako umeak

Zauritutako eta hildakoez gain, bi ume galdu ziren Munitibarko bonbardaketan: Jose Antonio Zuberogoitia eta Edurne Ostolaza.

Jose Antonio Zuberogoitia Uribe (Berriatu, 1930 - Villeneuve du Pareage, Frantzia, 1991): Anastasio Zuberogoitia Azumendi (1899 - 1979) Bizkaiko Foru Aldundiko bidezaina zen, eta Ondarroa eta Lekeitio artean zegoen bidezainen etxean bizi zen bere familiarekin. Susana Uribe Ajuriagojeaskoarekin (Munitibar 1897 - Etxebarria 1981) zegoen ezkondata. 1936ko urriaren hasieran, gerrako frontea Ondarroa eta Lekeitio arteko bidean gelditu zenez (Lekeitioko Frontea hor kokatu zen), familia osoa Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitzera joan ziren bizitzera. Izan ere, Susana Munitibarkoa zen.

Arratsaldeko bonbardaketak sorrarazi zuen anabasan, Anastasio eta Susararen seme Jose Antonio, zazpi urteko umea, bide ertzean gelditu zen bakarrik, zaurituta eta burua nahastuta. Gurutze Gorrikoek Bilboko erietxera eraman zuten identifikatu gabe, eta, gero, umezurtza zelakoan, Belgikara, shock egoeran, berba egin ezinik zegoelako. 1937tik 1942ra egon zen Belgikan bitzen, hango familia batekin.

³⁰ Egun berean, Intendentzia Militarreko beste kide batzuk ere hil ziren Gernikan (Urigoitia, IV:262). Guk baten izena ezagutzen dugu: Jose Luis Eraso Amondarain tolosarra.

Francoren tropak Bizkaian sartu zirenean, Anastasio kanpora bidali zuten apurtutako bideak konpontzera, eta bere emazte Susana Markinara joan zen bizitzera, bertako izeko baten etxera. Izan ere, Munitibarren bizi ziren etxea apurtuta gelditu zen bonbardaketan ondorioz.

1939an, ume desagertua hildakotzat eman zuen Zuberogoitia-Urbe familiak, eta hileta elizkizuna ere egin zioten Markina-Xemeingo karmeldarren elizan. Moja batzuen ikerketei esker, hamaika urte zituela, 1941ean, bueltatu zen Markinara (Juaristi, 2011:139-140).

Edurne Ostolaza Larrinaga (Ermua, 1934 – Ermua, 2010): 1937ko apirilaren 26ko arratsaldeko bonbardaketan, ihesean zihoazen hainbat pertsona zubi baten azpian ezkutatu ziren, hegazkinen erasoarengandik babesteko; eta bonba bat zubiaren gainean lehertu zen, eta zubipean ezkutatu zirenetariko asko hil ziren. Edurnek berak kontatzen zuen bezala:

1937ko apirileko 26an, Ermuko liberazio eguna zen egunean, aitak eta amak Ermutik alde egitea pentsatu zuten, itsasontzia hartu eta Frantzia aldera. Munitibarrera heldu ginenean, hegazkinak bonbak botatzen hasi ziren. Orduan aita, ama, ahizpa eta laurok, zubi azpian sartu ginen bonbetatik babesteko eta gurekin batera beste hainbat pertsona izan ziren han, baina oso gutxi atera ginen bizirik, ni, emakume bat eta beste Zaldibarko gizon bat. Nire aita, ama eta ahizpa bertan hil ziren (Aiestaran, 2006:6).

Edurnek zioenaren arabera, begitantzen zaigu zubia arratsaldeko bonbardaketaren ondorioz lehertu zela. Alde batetik, kontuan hartu behar da Ostolaza-Larrinaga familia apirilaren 26ko goizean atera zela Ermutik, eta pentsa daitekeena da goizeko eraso gertatu zenean (goizeko 7:30ak inguruan) heldu gabe egongo zirela Munitibarrera. Bestetik, Edurnek zioen Lekeitioko ospitalera eraman zutela eta gero Gernikara, baina dagoeneko Gernika suntsitua zegoenez, Bilboko ospitalera eraman zutela (Aiestaran, 2006:6). Zauritu eta gutxira Gernika txikitua zegoenez, pentsa daiteke arratsaldeko bonbardaketan zauritu zutela.

Bonbardaketa osteko anabasan, Edurne Bilbora eraman zuten, eta bere amamak eta lehengusina batek handik hilabetera topatu zuten Bilboko ospitalean:

Hilabete bila pasa eta gero, amamak eta lehengusina batek topatu ninduten Bilboko ospitalean. Nola ezagutu zintuzten? (kazetariaren galdea) Ospitaleko monjak erakutsi zieten kamiseta batengatik eta bekokian daukadan marka bategatik (Aiestaran, 2006:6).

Edurne bizirik atera bazen ere, leherketak sortu zizkion orbainek zeharo eragin zioten bizitza osoan. Metrailak ahoan eta aurpegian utzi zizkion zauriak sendatzeko hiru operazio egin behar izan zituen (Aiestaran, 2006).

Galera materialak

Galera pertsonalekin batera, galera materialak ere ugariak izan ziren Munitibarren.

Alde batetik, hainbat baserri, etxe eta solo apurtuta gelditu ziren (Onaindia, S., 1987: 71-72; Steer, 2002: 287- 289). Jaso ditugun testigantzen arabera, Garro auzoan hainbat bonba jauzi ziren, kalte ugari eragin zituztenak: Motaburu (Mataune) eta Txikitone baserriak txikituta gelditu ziren, eta Garro baserriko soloetan lau bonba jauzi ziren, eta oso kaltetuak gelditu ziren.

Arbatzegiko San Bizente Parrokia ere oso kaltetua gelditu zen. Leherkari bat teilatuan jauzi zen, gain-haga apurtu eta barruan lehertu zen (Zubikarai eta Fdez Egiguren, 1992:107).

Nazionalak herrian sartu zirenean (apirilaren 28an), errepublikarrek haien aurka jaurtikitako obus batek, hegoaldeko horman zulo bat egin zuen, eta alde hartako aldarea (elizako

eskuman dagoen kapera) lehertu zuen, eta beste obus batek elizpea. Apurtutako kaperan zegoen erretaula ere txikituta gelditu zen³¹ (Zubikarai eta Fdez Egiguren, 1992:107).



Arbatzegiko San Bizente Parrokia. Iturria: Urdaibairen web orria (<http://www.urdaibai.org>)

10. 1937ko apirilaren 26ko arratsaldea Munitibar inguruan

Rosa Luxenburgoko soldaduak Oiz inguruan egin zuten apirilaren 26ko egun osoa, eta inguratuta gelditzeko beldurrez (kontuan izan Frankistak Oiz mendiaren hego-mendebaldeko hegala kontrolatzen zutela, eta Trabakuatik Iruzubietarantz zihoazela), arratsaldean Bolibarrera jaitsi ziren, Urberuagako bainuetxeko (Markina-Xemein) kuartelera heltzeko helburuarekin. Horien ihesa ahalbidetzeko, Arrosako beste soldadu batzuk tapoi lanak egiten aritu ziren Bolibarren. Jaime Urkijok dioen bezala:

Llegaron los nuestros esperados y salimos lanzados hacia Bolivar, donde nos encontramos con nuestra compañía que oficiaba de tapón. Por la carretera nos cruzamos con numerosos grupos de gudarís en retirada, los cuales en cuanto oían ruidos de motor se metían en la maleza. Los gudarís tomaban sus precauciones puesto que estaban bien encuadrados y adiestrados. Los franquistas no se preocupaban de nuestras columnas y seguían bombardeando (Urkijo, 2014:220).

Arrosakoek ihes egin zutenean, frankistak Trabakuatik behera jaitsi, eta Iruzubietara ailegatu ziren. Posizioak sendotu zituzten, eta Bilborako bidea itxi. Iruzubietatik tiro egiten hasi ziren Aulestiko bidera, Meabe auzoan (Markina-Xemein) gora, Markinatik ihesean zihoazenen aurka. Ez zen erraza Markinatik ateratzea.

Apur bat geroago, 26ko arratsaldean, frankistek Ziortza-Bolibar konkistatu zuten (Urkijo, 2014:220 eta Beldarrain, 1980). Beraz, Gernikarantz ihesean zihoazen soldadu errepublikarrek ezin zuten bide hori erabili, eta mendietatik (asko eta asko Urregarai menditik zehar) ihes egin behar izan zuten. Beldarrainek zioen bezala:

En seguida, por la tarde, el enemigo ahondaba en nuestra retaguardia bajando por la carretera de Trabakua hasta la bifurcación de Iruzubieta y de aquí seguía hacia Bolivar, ya por el camino natural de Markina a Gernika. Esto hacía que nuestros batallones en retirada se las debían arreglar

³¹ Eskumako erretaula Gerra Zibilaren ostean berritu zen. Erdi-puntuko arkuak dauka, ordena konposatutako estipite bik eusten dutena. Barruan San Joakin eta Santa Anaren eskultura handi bi daude. Ybarraren arabera, bi satu horiek desagertutako erretaulari dagokie (Ybarra y Berge, 1958).

tomando caminos de monte más penosos, o de carretera más largos, a través de Lekeitio (Beldarrain, 1980).

Apirilaren 26an, errepublikarrek Elorrioko, Elgetako eta Eibarko fronteak utzi zituztenean, soldadu frankistak Eibarren, Ermuan, Zaldibarren, Berrizen eta Garain sartu ziren (Irazabal, 2012:210). Biharamunean, 27an, Markina-Xemeinen, Etxebarrin eta Berriatuan; 28an Munitibarren eta 29an Lekeitio eta Durangon.

11. Apirilak 28: frankistak Munitibarren

Bi egunetara, 1937ko apirilaren 28an, Camilo Alonso Vega Komandantearen mendean zegoen Nafarroako IV Brigada Munitibarren sartu zen. Zehatzago esanda, Jose Martinez Esparza teniente koronelaren agindupean zegoen Nafarroako IV Brigadako zutabe bat izan zen Munitibar konkistatu zuena. Arana Martijak zioen bezala (Arana, 2007:406):

El Teniente coronel Camilo Alonso Vega cuenta con la IV Brigada de Navarra, el Batallón Zamora y el V Tabor (unidad militar del ejército español de Marruecos formada por varias compañías) de Tetuán (norteafricanos). Puede organizar dos columnas de ataque, partiendo de Marquina y Bolívar. La primera de ellas, al mando del Teniente coronel Ricardo Iglesias sale de Marquina a Aulestia y de allí por Navárniz y los collados de Zabala a Rentería donde se juntará a la otra columna. Esta parte de Bolívar y una rama sube a Oiz y Goroño, luchando en Urruchua; la otra rama, al mando del Teniente coronel José Martínez Esparza, pasa por Arbácegui, Mendata y tras el encuentro con los gudaris en Márniz, llega a Ajánguiz y de allí, sin dificultades, a Rentería, entrando con la otra columna, por el puente de Rentería en Gernika a media tarde. Por la mañana, a eso de las once, han entrado ya los “Flechas Negras” italianos, que tras tomar Lekeitio, y Elanchove, entran por Arteaga y Cortézubi en Gernika.



Munitibar konkistatu zuen Jose Martinez Esparza teniente koronela. Iturria: wikipedia.

Munitibar konkistatu zuten egunean izan zuen munduak Gernikan eta inguruko herrietan gertatu ziren bonbardaketa bortitzen berri. Hain zuzen ere, apirilaren 28an, The Times eta The New York Times egunkarietan argitaratu zituen kroniketan, George Steerek argi azaldu zuen Kondor Legio alemaniarrek Gernikan eta inguruko herrietan (Arteaga, Kortezubi, Munitibar, Arbatzegi eta Bolibar) zibilen aurkako bonbardaketak burutu zituela. Bere kronikak eragin handia izan zuen nazioartean. Southworth historiagilearen arabera (1977), kronika hori 1936ko gerrateko garrantzitsuenak izan zen. Horren bidez, munduak jakin ahal izan zuen zein izan zen sarraskiaren egilea eta nortzuk ziren helburu: zibilak.



Gernikaren aurkako bonbardaketa azaltzen zuen Steerrek idatzitako berria The New York Times egunkariaren portadan agertu zen 1937ko apirilaren 28an

12. 1937ko maiatzak 11: Munitibarren eta beste herri batzuen aurkako bonbardaketen salaketa

Arbatzegiko abade laguntzaileak, Paskasio Etxezarragak³², eta Gerrikaitzekoak, Eugenio Arana Elorrietak³³, beste hainbat abade eta bikarioekin batera, Aita Santuaren aurrean Durangoko, Gernikako eta Munitibarko bonbardaketak salatu zituzten. Jon Irazabalek bere 1937 martxoak 31 Durango liburuan dioen bezala, (2012:113):

³² Gasteizko gotzaindegiaren Aldizkari Ofizialean (1931-1-3) adierazten denez, Paskasio 1931an egin zuten diakono. Mikel Aizpuruk dioenaren arabera, ideologia karlistatik hurbil zegoen, eta gerra aurrean Elosun egon zen abade lanetan (Aizpuru, 2001:59).

³³ Eugenio Arana Elorrieta Nabarnizen jaio zen 1867. urtean, eta 1895. urtean abadetu zen. 1902. urtetatik Gerrikaitzeko abade laguntzailea zen.

Maiatzaren 11n, Euzkadi egunkariak, portadan, Ramon de Galbarriatu Bikario Nagusiak eta Durango, Gernika, Bilbo, Arbazegiko abadeekin batera Aita Beatuari igorritako gutuna argitaratu zuen. Gutun horretan, Bizkaiko hainbat herrik pairatutako bonbardaketei buruzko egia agertzen ahalegindu ziren. (...). Gutun hartan adierazten da Durango, Gernika eta Arbazegiren suntsipena ez zela soldaduen gauza Salamancak adierazten zuen bezala, bonbardaketa bortitzen ondorioa baizik. Hilabete batzuk geroago, irailaren 1ean, Bilbo Franco jeneralaren tropen mende dagoela, Bikario Nagusia gutun bateratu hartatik desbinkulatu zen bere borondatearen aurka sinatu zuela adieraziz.



Gernika bonbardaketaren ondoren. Iturria: <http://www.eitb.eus/es/fotos/detalle/866991/bombardeo-gernika/>

13. Zergatik Munitibarren aurkako eraso?

Frankisten arabera, Munitibar bonbardatu zuten, errepublikarrek defentsa berrantolatzen ari zirelako bertan. Herbert Rutledge Southworthek bere *La destrucción de Guernica: periodismo, diplomacia, propaganda e historia liburuan* (1977), Erromako *Il Mensagero* egunkarian agertu zen telegrama bat agertzen du. Telegrama hartan esaten da Arbatzegi eta Gerrikaitz bonbardatu zituztela, errepublikarrak han ari zirelako defentsa berrantolatzen (Southworth, 1977:60):

La fuerza aérea nacional participó hoy también intensamente en la batalla, bombardeando fuertemente Arbacegui y Guerricaiz, donde el enemigo intenta reorganizar su defensa...

Dena dela, Mathieu Cormanek, Parisko *Ce Soir* egunkariko kazetariak Munitibarren eta Gernikaren aurkako bonbardaketen berri emateko bidali zuen telegraman zioen herriak ez zuela inolako interes militarrik, eta frontetik 25 kilometrotara zegoela (Aguirre, 1979:136):

Hemos sido ametrallados durante veinte minutos por siete aviones de caza en Guerricaiz. Poco después, este pueblecito era destruido por sesenta bombas incendiarias y torpedos pesados que fueron lanzados en pocos

minutos. Sin embargo, el pueblo no presenta ningún carácter militar y se halla a 25 kilómetros del frente (...). Dos ancianos sacerdotes, con las sotanas manchadas por el barro despedido por las explosiones, lloran sobre las ruinas que sepultan a la población campesina (...).

Urkijoren arabera, ihesean zihozen soldaduak erasoz, frankistek Euskal Armada ahuldu nahi zuten, bere eraginkortasuna murrizteko eta baita morala jaisteko ere. Urkijok zioen bezala:

Pensábamos que el mando franquista, al percatarse del derrumbamiento del sector de Eibar, estaba actuando sobre su arrastre con la afluencia de gentes en las carreteras, que conducían entre otros puntos a Gernika.

La eliminación de estas fuerzas en repliegue debilitaría enormemente la resistencia del Cuerpo del Ejército Vasco, tanto en efectivos como en moral. La detección de estos elementos en repliegue era cosa fácil para los franquistas, al disponer de tanta cantidad de material aéreo. Una vez localizadas las rutas de evacuación de tales fuerzas, su destrucción era asunto temporal, ya que no se imponía ningún factor negativo para tal empresa, a causa de nuestra falta de medios para obstaculizarlos (Urkijo, 2014:219).

Wolfram von Richthofenek, Kondor Legioaren buruak, ere Munitibarren aurkako bonbardaketen helburua ihesean zihozen soldaduak jazartzea zela zioen: “(...) para hostigar la retirada roja. (...)” (Salas, 1987:209).

14. Azken berbak

Gure ustez, Munitibar eta Oiz inguruko herriak bonbardatu zituzten ihesean zihozen euskal armada ahultzeko, baita herritarren morala jaisteko ere. Eta, egia esan, helburua lortu zutela esan genezake. Izan ere, Muniibar-Arbatzegi-Gerrikaitzen zeuden zibil zein soldaduek asko sufritu zuen 1937ko apirilaren 26an. Goizeko bonbardaketaren ostean, herria hutsik gelditu zen, eta herritarrak egun osoa pasatu zuten mendian ezkutatuta. Garai hartan umeak izan zirenen oso ondo gogoratzen dituzte hegazkinen joan-etorriak eta bonba hotsak, baita bizi izan zuten beldurra ere. Ilundu zuen arte ez ziren etxera bueltatu.

Gure datuen arabera, 7 zibil (munitibartarrak bi bakarrik ziren) eta 4 soldadu hil zituzten herrian bertan, eta Oiz mendian beste bi soldadu (27an beste bi gehiago). Zaurituak, galdutako umeak ere izan ziren. Anabasa hura betirako gelditu zen 1937ko apirilaren 27an Munibitar-Arbatzegi-Gerrikaitzen egon zirenen memorian.

15. Bibliografia

Aguirre, J.M. (1979): *Historia general de la guerra civil en Euskadi*, 5. liburua, El Clero Vasco I, L. Haranburu, Donostia.

Aiestaran, (2006): “Edurne Ostolaza: ‘Gerrak nire bizitza goitik behera aldatu zuen’”, *Drogeteniturri, Ermua eta Mallabiko aldiak*, 138, 5-7.

Aizpuru, M. (2001): “Abertzaletasuna Araban: Legutianoko jeltokideak XX. Mendearen lehen herenean”, *Uztaro* 39, 53-61.

Arana Martija, J. A. (2007): “Camino de Bilbao, la toma y ocupación de Gernika: dos interesantes cartas del comandante militar”, *Bidebarrieta* 18, 459-472.

Azurki, A. (2011): *Maizales bajo la lluvia. Testimonios de los últimos gudarís y milicianos de la Guerra Civil en Euskadi*, Alberdania, Irun.

Beldarrain, P. (1980): *Los Asaltos al Monte Intxorta. Intxorta Mendiko Burrukaldiak (1936-1937)*, Bidasoa Orainaldiko Edesti-Ikasgoa, Geu Argitaldaria, Bilbao.

Bidasoa (2005): *La guerra civil en Euzkadi. 136 testimonios inéditos recogidos por José Miguel de Barandiaran*, Bidasoa. Instituto de Historia Contemporanea. Hegoa. Frantzia.

Gandiaga, B. (1987): *Triskantzatik esperantzara*, Graficas Munguía, Mungia.

“Gernika en llamas”, *Euzkadi egunkaria* (1937-4-28), 6. orria.

Gutierrez Arosa, J. (2007): *La Guerra Civil en Eibar y Elgeta*, Eibarko Udala, Elgetako Udala eta Ego Ibarra Batzordea.

Irazabal, J. (2012): *Gerra Zibila Durangaldean 1936-1937*, Gerediaga Elkarte, Durango.

Juaristi, P. (2011): *Markinako Frontea*, UPV/EHU-ko Argitalpen Zerbitzua, Bilbao.

Juaristi, P. (2014): *Gerra Zibila Berriatuan eta Lekeitioko Frontean*, UPV/EHU-ko Argitalpen Zerbitzua, Bilbao.

Onaindia, S. (1987): *Gernika*, Aita Onaindia, Larrea.

Onaindia, S. (1988): *Oroi-Txinpartak*, Igarri, Bilbo.

Steer, G. L. (2002): *El Árbol de Gernika. Un ensayo sobre la guerra moderna*, Txalaparta, Tafalla.

Salas, J. (1981): *Guernica*, Rialp, Madrid.

Southworth, H. R. (1977): *Periodismo, diplomacia, propaganda e historia*, Iberia, Bartzelona

Talon, V. (1988): *Memoria de la Guerra de Euzkadi de 1936*, Plaza & Janes, Bartzelona.

Urgoitia, J. A. (2002): “Del derrumbamiento del Frente de Gipuzkoa a la Estabilización del Frente (20 de abril – 5 de mayo de 1937)” in Urgoitia, J.A. (Zuzendaria): *Crónica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular. La Ofensiva del General Mola Sobre Bizkaya*, IV. Tomoa, Sendoa, Oiartzun.

Urkijo, J. (2014): *Diario de un gudari en el frente de Euskadi*, Intxorta 1937 kultur elkarte, Oñati.

Vargas Alonso, F.M. (1999): “Gudarís Guipuzcoanos en el Euzko Gudarostea (1936-1937)”, *Bilduma* 13, 193-235.

Vargas Alonso, F. M. (2001): “La formación de los batallones y la guerra en Vizcaya” in Urgoitia, J. A. (Zuzendaria): *Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular. Primera Parte. La pérdida de Guipuzcoa*, II. Tomoa, Sendoa, Oiartzun.

Ybarra y Berge, J. (1958): *Catálogo de Monumentos de Vizcaya*, Imprenta Provincial, Bilbao.

Zubikarai, A. eta Fdez Eiguren J. (1992): *Munitibar. Arbatzegi-Gerrikaitz*, Agustin Zubikarai, Bilbo.

16. Erabilitako web orriak

Ahaztuen Oroimena: <https://ahaztuenoroimena.com/>

Eusko Jaurlaritza, Justizia eta Herri Administrazio Saila: Gerra Zibilean desagertutako pertsonen zerrenda:

http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-contmh2/es/contenidos/informacion/listado_personas_desaparecidas/es_memoria/b_listado_personas_desaparecidas.html

Eusko Jaurlaritza: Liburuklik: Euskal Liburutegi Digitala, hemeroteca, prentsa historikoa: <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/10408>

17. Aztertutako artxibategiak

Aranzadi Zientzia Elkartearen agiritegia, Donostia: presondegian edo langileen batailoietan egondakoen zerrendak.

Archivo Intermedio de la Región Militar Noroeste (Airmn), Ferrol, Bilbao funtsa: epaiketa militarra izan ostean, kartzelan egon zirenen zerrendak.

Archivo General de la Administración (AGA), Alcala de Henares: epaiketa militarra izan ostean, kartzelan egon zirenen zerrendak.

Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa.

Munitibarko Udal Artxibategia: Munitibarko Erregistro liburua.